# Iragarkiak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### HERRIZAINGO SAILA

LEHIAKETA, egongeletarako eta itxarongeletarako materiala eskuratzeko dena. 20231

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

CONCURSO para el suministro de material para dormitorios y salas de espera. 20231

# Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

### Zk-5521

AGINDUA, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko.

Gazteriaren osoko politikaren kontzeptuak gero eta jarraitzaile gehiago ditu Europan. Gero eta gehiago dira ikuspegi hori aukeratzen duten herrialdeak, gazteen gaiak, beharrak eta arazoak direla-eta, eta herrialde horiek zenbait neurri hartzen ari dira gazteen aldeko ekintzak ahalik eta ondoen koordinatzearren.

Gazteek, gaur egun, arazo larri bat daukate: langabezia. Langabeziak gazteei beren buruen jabe bihurtzea eragozten die, eta horrek eragin handia dauka beren bizitzetan. Izan ere, gizarte honetan gazteak dira lanik eza eta lana aurkitzeko zailtasunak bereziki jasaten ari diren kolektiboetako bat. Gainera, berdin dio ekonomiak gora egitea. Lanposturik ez izatea, gurasoengandik aparte bizi izateko etxerik ez izatea, oztopo larriak dira benetan independenteak eta autonomoak izateko. Egoera horretan dagoenak autoestimua galtzen du. Bizitzan dituen asmoak egia bihurtzeko baliabiderik eza sumatzean, «soberan dela» pentsatzen hasten da, eta berarentzat jasanezinak izan daitezke gizartean sartzeko zailtasun horiek.

Gazteak beren buruaren jabe bihurtzeko eta gizarteratzeko oztopoen ondorioak latzak dira: gaztaroa luzeegia bihurtu da, gazteek gizartetik at daudela pentsatzen dute, babesik gabeko gazteek ohi baino gehia-

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

### N°-5521

ORDEN de 10 de diciembre de 1999, de la Consejera de Cultura, por la que se crea y determinan las funciones del Observatorio Vasco de la Juventud.

La noción de política integral de juventud va ganando terreno de forma progresiva en Europa y cada vez son más los países que tratan de incorporar este enfoque en el tratamiento de las cuestiones, necesidades y problemas relacionados con la juventud, adoptando distintas medidas para mejorar la coordinación de las actuaciones dirigidas al colectivo juvenil.

La realidad que viven las personas jóvenes está fuertemente condicionada por el freno que supone el desempleo a su emancipación y las múltiples consecuencias que de ello se derivan en sus vidas. Uno de los colectivos sociales que sufre de un modo especial las consecuencias del paro y las dificultades de inserción laboral, incluso en coyunturas económicas como las actuales de crecimiento y bonanza económica, es el juvenil. No acceder a un puesto de trabajo, ni a una vivienda propia, supone carecer de una independencia y autonomía personales reales, ver tambalearse la autoestima del sujeto y, ante la falta de perspectivas y de viabilidad cercana a un proyecto de vida, tener la sensación de «estar de más» y vivir dolorosamente las dificultades para una integración real como individuos.

El freno al proceso de emancipación personal y de integración social tiene efectos negativos sobre el colectivo juvenil, cuyas consecuencias son la prolongación de la etapa juvenil, la sensación de exclusión social, la

go sufritzen dute eta arrisku-faktoreak ugaritu egiten dira.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta EUDELek (euskal udalerrien izenean) EAEko Gazte Plana onartu dute, 1999-2001 aldirako. Planak konpromiso handi bat islatzen du, euskal erakundeek gazteen alde hurrengo urteetarako hartu dutena.

EAEko Gazte Planak, Kudeaketa-antolaketaren sailean, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu du. Horren eginkizuna hauxe izango da: iturri guztien informazioa bildu eta erakundeen eta euskal gizartearen esku jartzea. Bestalde, kokapenari dagokionez, Behatokia Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren menpeko zerbitzu bat izango da.

Izatez, Kultura Saileko Egitura Organikoa finkatzen duen urriaren 19ko 359/1999 Dekretuaren arabera, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren barruan egongo da Gazteriaren Euskal Behatokia, esan bezala, eta bere eginkizunak eta ezaugarriak agindu honetan zehazten dira.

Esandako guztiaren ondorioz, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Gazteriaren Euskal Behatokia sortzea, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren berariazko zerbitzu bezala, «Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren» helburuak betetzen laguntzeko (ikerketa, informazioa eta etengabeko dokumentazioa).

Gazteriaren Euskal Behatokiak, Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariaren bitartez, hauekin batera egingo du lan: alde batetik, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearekin; bestetik, haren barnean sortzen diren lan-talde eta batzorde teknikoekin ere.

*2. artikulua.–* Gazteen arloan Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen esparruan, Gazteriaren Euskal Behatokia baliabide egokia da gazteen egoera eta bilakaera edozein unetan eta ikuspegi guztietatik aztertzeko. Horrela, Euskadin gazteriaz arduratzen diren administrazio publikoen jokabidea ebaluatu ahal izango da; batez ere, erkidegoko administrazioarena.

Hori guztia dela-eta, hauek izango dira Behatokiaren eginkizunak:

Zuzenean edo zeharka EAEko gazteen egoera eta arazoak ezagutzeko aukera emango duten informazioa bil-

especial repercusión de la crisis sobre colectivos jóvenes indefensos y el aumento de los factores de riesgo.

Como respuesta a los fenómenos descritos, el Plan Joven de la CAV 1999-2001, aprobado por el Gobierno Vasco, el Parlamento Vasco, la Diputación Foral de Alava, la Diputación Foral de Bizkaia, la Diputación Foral de Gipuzkoa y EUDEL en representación del conjunto de los municipios vascos, refleja el compromiso de las instituciones vascas con la juventud durante los próximos años.

El Plan Joven de la CAV incorpora, dentro del apartado de Organización gestora del Plan, el Observatorio Vasco de la Juventud, asignándole la función de integrar la información procedente de las diversas fuentes y de ponerla a disposición de las Instituciones y la Sociedad Vasca, indicando, además, que dicho Observatorio se constituirá como un Servicio bajo la dependencia de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Gobierno Vasco.

Mediante el Decreto 359/1999 de 19 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica del Departamento de Cultura, se adscribe a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria el Observatorio Vasco de la Juventud, cuyas funciones y características son determinadas mediante la presente Orden.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se crea el Observatorio Vasco de la Juventud como un servicio específico de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria para el desarrollo de las funciones de investigación, información y documentación permanente del «Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca».

El Observatorio Vasco de la Juventud, a través del Director de Juventud y Acción Comunitaria, colaborará con la Junta Rectora del Plan Joven y los Grupos de trabajo y Comisiones técnicas que en su seno se constituyan para el impulso de las funciones que respectivamente le vienen asignadas.

*Artículo 2.–* Dentro del ámbito competencial atribuido a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el área, el Observatorio Vasco de la Juventud constituye el instrumento para disponer de una visión global y permanente de la situación y evolución del mundo juvenil que permita evaluar el impacto y efecto de las actuaciones llevadas a cabo en Euskadi en general por las Administraciones Públicas con competencias en materia de juventud y en particular por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

A tal fin, con carácter específico acometerá las siguientes funciones:

Recoger la información que, de forma directa o indirecta, pueda dar cuenta de la problemática del mun-

tzea, baita gazteekin lotutako hainbat faktoreri buruzkoa ere.

Lortutako informazioa lantzea, joera berriak eta gazteen munduan nahiz horri lotutako faktoreetan gertatzen diren aldaketak aztertuz.

Prestaketa eta bideragarritasunezko ikerketak eta azterlanak egitea; adituen bilerak antolatzea, eta behar izanez gero, lan taldeak sortzea.

Dokumentazio fondo zientifikoa eratu eta informazio jarduerak bultzatzea.

Datuen bilketan irizpideen bateraketa erraztea. Horretarako gazteekin zerikusia duten beste zenbait erakundek erabiltzen dituzten adierazleekin harmoniza daitezkeen adierazleak identifikatu beharko dira.

Aurreko prozesuetatik lortutako informazioak zabaldu eta, hala balegokio, gazteen egoerari buruzko argitalpenak egitea, aldizkakoak edo puntualak.

Gazteriaren Behatokiarekin elkarlanean arituko diren entitateei aholkua ematea (informazio zentroei, instituzioei, sail eta erakundeei).

Informazioaren elkartrukaketa erraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko honako agente hauen artean: erabakiak hartzen dituzten agintariak, ikertzaileak, profesionalak eta gazteen eremuan esku hartzen duten agente nagusiak.

Araudien bidez ezartzen den beste edozein eginkizun betetzea.

Gazteriaren Euskal Behatokiak garatu eta bultzatzen dituen jarduera guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Planaren menpean egongo dira, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen eskumena errespetatuta.

*3. artikulua.*– Gazteriaren Euskal Behatokiak, lotutako harremanetan eta bildutako datuetan oinarrituta, ondoko informazio-baliabideak sortuko ditu eta Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendariari helaraziko dizkio:

Urteko txostena, erakunde eta gai anitzi buruzkoa, Euskadiko gazteen egoeraren inguruko datuak bilduko dituena.

Aldiro-aldiroko txostena, Euskadiko gazteak nola aldatzen ari diren erakutsiko duena.

*4. artikulua.*– Helburu horiek eskuratzearren, Gazteriaren Euskal Behatokiak gazteen arazoez arduratzen diren erakunde publiko eta pribatuekin, gizarteko eragileekin eta adituekin harremanetan egoteko moduak proposatuko ditu, horiekin guztiekin batera dokumentuak eta jarduteko proposamen adostuak sortzearren.

do juvenil en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de los factores asociados al mismo.

Analizar la información obtenida, estudiando las nuevas tendencias, así como los cambios que se vayan produciendo tanto en el mundo juvenil como en los factores asociados al mismo.

Realizar investigaciones y estudios preparatorios y de viabilidad, organizar reuniones de personas expertas y crear, si fuere necesario, grupos de trabajo.

Constituir un fondo documental científico e impulsar las actividades de información.

Facilitar la unificación de criterios en la recogida de datos, mediante la definición de indicadores susceptibles de armonizarse con los utilizados por otros organismos de naturaleza y funciones similares.

Difundir las informaciones resultantes de los procesos anteriores y, en su caso, elaborar publicaciones de carácter periódico o no sobre la situación de la juventud.

Asesorar a los diferentes centros emisores de información, instituciones, departamentos y organismos que colaboren o puedan colaborar con el Observatorio.

Facilitar el intercambio de información entre las diferentes autoridades encargadas de la toma de decisiones, el personal investigador, los/as profesionales y los principales agentes intervinientes en el campo juvenil en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Cualquier otra función que se determine reglamentariamente.

Las actuaciones que desarrolle y promueva el Observatorio Vasco de la Juventud, lo serán, en todo caso atendiendo el marco fijado por el Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca, y con pleno respeto a las funciones de la Junta Rectora del Plan Joven.

*Artículo 3.*– El Observatorio Vasco de la Juventud, a partir de los datos obtenidos y relaciones mantenidas, conformará los siguientes instrumentos de información para su presentación al Director de Juventud y Acción Comunitaria:

Un informe anual, de carácter interinstitucional e interdisciplinar, que recoja los datos sobre la situación de la juventud vasca.

Un informe periódico que posibilite el seguimiento de los cambios que se vayan produciendo en la juventud vasca.

*Artículo 4.*– A fin de desarrollar los objetivos señalados, el Observatorio Vasco de la Juventud, propondrá los cauces de comunicación oportunos con las Instituciones Públicas, Entidades privadas, agentes sociales y expertos relacionados con la problemática juvenil, dirigidos a la formulación de documentos y propuestas de actuación consensuadas.

Ondorioz, Behatokiak organo eskudunei eragingo die, horiek arlo horretako erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmenak eta elkarlaneko beste instrumentu batzuk sor ditzaten, beti gazteen kolektiboen aniztasuna errespetatuta.

*5. artikulua.–* Gazteriaren Euskal Behatokiaren ekintzak aurrera eramateko, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzako giza baliabideak eta baliabide materialak erabiliko dira, arautuko moduan.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko abenduaren 10a.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

En tal sentido, promoverá la formalización por los órganos competentes de los convenios o instrumentos de colaboración que se consideren idóneos con las organizaciones públicas y privadas vinculadas al ámbito de actuación asignado, respetando la pluralidad y diversidad de los colectivos juveniles.

*Artículo 5.–* Las actuaciones a desarrollar por el Observatorio Vasco de la Juventud serán realizadas con los medios humanos y materiales de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria asignados a tal fin conforme a los procedimientos reglamentariamente establecidos.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La presente Orden entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 1999.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### ASPARRENAKO UDALA

### Zk-5522

IRAGARKIA, idazkari-kontuhartzailearen lanpostua behin-behingoz, zerbitzu-eginkizunez edo bitartekaritzaz betetzeko deialdiari buruzkoa.

Deialdiaren xedea.– Dela behin behingoz dela zerbitzu-eginkizunez nahiz bitartekaritzaz, Asparrenako idazkari-kontuhartzailearen lanpostua betetzea, 2000ko apirilaren 1etik idazkari-kontuhartzaile titularraren eszedentzia —seme alabak zaintzeko— amaitzen den arte, hots, 2001eko abuztuaren 9ra arte gehienez.

Idazkaritza-kontuhartzailetzaren azpieskalan, gaikuntza nazionaleko toki funtzionario izateko baldintza betetzen ez bada, eta bitartekari bat izendatu behar baldin bada, hautatzen den langilea lan-kontratuz kontratatuko da 2000ko martxoan praktikak egiteko.

Deialdiaren oinarriak.– Deialdiko oinarriak eta hautatze-prozesua Korporazioko Osokoak onartu ditu

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### AYUNTAMIENTO DE ASPARRENA

### N°-5522

ANUNCIO relativo a la convocatoria para la provisión del puesto de Secretario-Interventor mediante nombramiento provisional, nombramiento en Comisión de Servicios o nombramiento interino.

Objeto de la convocatoria.– Provisión del puesto de Secretario-Interventor del Ayuntamiento de Asparrena, mediante nombramiento provisional, nombramiento en Comisión de Servicios o nombramiento interino desde el 1 de abril de 2000 y hasta el fin del periodo de excedencia por cuidado de hijos del Secretario-Interventor titular, como máximo hasta el 9 de agosto de 2001.

Si por no reunir la condición de funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, Subescala Secretaría-Intervención, el nombramiento a realizar deba de ser nombramiento interino, la persona seleccionada será contratada igualmente en régimen laboral para realización de prácticas durante el mes de marzo de 2000.

Bases de la convocatoria.– Las Bases de la convocatoria y el proceso selectivo han sido aprobadas por el